

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

# **EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO**

## **PREBENTZIO ZERBITZUAREN**

### **TXOSTENA**

**2009**

## AURKIBIDEA

<b>0.- SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>1.- OSASUN ARLOA</b>	<b>6</b>
<b>1.2.- OSASUN AZTERKETAK</b>	<b>7</b>
1.2.1. AURRETIAZKO AZTERKETAK	7
1.2.2. AZTERKETA ESPEZIFIKOAK	8
1.2.3. PROBA ESPEZIFIKOAK	8
1.2.4. ALDIAN BEHINGO AZTERKETAK	9
.- UPV/EHU (guztira)	10
.- Arabako Campusa	12
.- Gipuzkoako Campusa	18
.- Bizkaiko Campusa	26
<b>1.3.- ESKAINITAKO ZERBITZUAK</b>	<b>38</b>
<b>1.4.- ERIKORTASUN ARRUNTA</b>	<b>41</b>
<b>1.5.- LAN ISTRIPUAK</b>	<b>47</b>
<b>1.6.- LANEKO GAIXOTASUNAK</b>	<b>51</b>
<b>1.7.- HILKORTASUNA</b>	<b>52</b>
<b>1.8.- JARDUEREN PROGRAMA</b>	<b>54</b>
<b>2.- ARLO TEKNIKOA</b>	<b>60</b>
<b>2.1.- PREBENTZIO JARDUEREN ANTOLAMENDUA</b>	<b>61</b>
<b>2.2.- EGINIKO JARDUERAK</b>	<b>61</b>
.- ARABAKO CAMPUSA	62
.- GIPUZKOAKO CAMPUSA	70
.- BIZKAIKO CAMPUSA	76
.- INGURUMEN KUDEAKETA	81
<b>3.- ERANSKINAK</b>	<b>89</b>

0.

SARRERA

Euskal Herriko Unibertsitateko Prebentzio Zerbitzuak 2009. urteko txostena idatzi du, ekitaldi horretan eginiko lanari buruzko datu nagusiak aurkezteko.

Testuak erregistro-arauetan ezarritakoa hartzen du kontuan lan-absentismoari eta haren diagnostikoari buruzko zifrak aurkezteko orduan.

Txostenak 2009ko joera nagusiak aztertu eta arazoaren kausa posibleak adierazten ditu, arazo horiek ikertu eta irtenbideak aurkitzeko.

Beraz, dokumentu hau idatziz, Prebentzio Zerbitzuko Erregelamenduaren 15. artikuluko 5. atalak ezartzen duena betetzen dugu: hau da, Prebentzio Zerbitzuak urteko txostena idaztea, arloan eskumena duten agintarien esku uzteko.

Horiek horrela, dokumentu honek Dokumentazio izaera du, Laneko Arriskuen Prebentziorako Legeak (LAPL) (31/1995 Legea) eta Prebentzio Zerbitzuaren Erregelamenduak (39/1997 ED) ezartzen duten esparruaren baitan, eta agintarien esku jarri behar du UPV/EHUK. Gainera, UPV/EHUKo Segurtasun eta Osasun Batzordeei ere aurkeztu behar zaie, txostenaren berri izan dezaten (LAPL 39. art. 2-d).

## **PREBENTZIO ZERBITZUKO KIDEA**

Prebentzio Zerbitzuko Burua:	<b>Iñigo Apellaniz González</b>
Administrazioko laguntzailea:	<b>María Luisa Urruela Vallejo</b>
Osasun Arloko Arduraduna:	<b>Iñaki Uruburu Irazabal</b>
Arlo Teknikoko Arduraduna:	<b>Ana Escobal González</b>

**Osasun Arloa:** hiru Oinarrizko Osasun Unitate (OOU) ditu:

### ***OOU Arabako Campusa***

Ricardo Basterra Ortiz (Enpresako EUD)

### ***OOU Gipuzkoako Campusa***

M<sup>a</sup> Jose González Kareaga (Laneko Medikua)

Ainhoa Arana Aristizabal (Enpresako EUD)

### ***OOU Bizkaiko Campusa***

Iñaki Uruburu Irazabal (Laneko Medikua)

Miren Muxika Zubillaga (Enpresako EUD)

## **Arlo Teknikoa:**

Prebentzioko Teknikariak:

- .- Luis Escribano Sardón (Arabako Campusa)
- .- Juan Carlos Arizkorreta Arkotxa (Gipuzkoako Campusa)
- .- Roxana Avilés Lizama (Bizkaiko Campusa)

Ingurumen Kudeaketarako Teknikaria

- .- Juan M<sup>a</sup> Apaolaza Estensoro (Gipuzkoako Campusa)

**IRAKASLE ETA LANGILE TALDEA: BANAKETA IKASTEGIKA (2009ko abendua)**

	EME	KAT	TIT	BIT	IK	AZP	GUZTIRA
ENPRESA IKASKETEN UE	0	0	9	0	15	8	<b>32</b>
IRAKASLEEN UE	0	5	40	0	39	11	<b>95</b>
INGENIARITZA UE	0	6	58	1	58	25	<b>148</b>
GIZARTE LANGINTZA UE	0	0	10	0	16	8	<b>34</b>
FARMAZIA F.	0	18	62	0	120	39	<b>239</b>
LETREN F.	2	38	124	0	152	28	<b>344</b>
JF eta KIROL ZIENTZIEN F.	0	0	1	0	53	15	<b>69</b>
ZERBITZU ZENTRALA	0	0	0	0	0	80	<b>80</b>
<b>GUZTIRA ARABA</b>	<b>2</b>	<b>67</b>	<b>304</b>	<b>1</b>	<b>453</b>	<b>214</b>	<b>1041</b>
ERIZAINZAKO UE	0	0	21	0	20	14	<b>55</b>
KIMIKA F.	0	21	43	0	110	34	<b>208</b>
IRAKASLEEN UE	0	6	43	0	36	17	<b>102</b>
ARKITEKTURA GET	0	5	23	2	70	21	<b>121</b>
ENPRESA IKASKETEN UE	0	6	35	0	15	18	<b>74</b>
EIBARKO IITUE	0	0	25	0	19	13	<b>57</b>
ESKOLA POLITEKNIKOA	0	12	56	0	99	32	<b>199</b>
ZUZENBIDE F.	1	31	32	0	104	48	<b>216</b>
FILOSOFIA ETA HZ F.	1	17	50	1	74	27	<b>170</b>
PSIKOLOGIA F.	1	13	35	1	76	29	<b>155</b>
INFORMATIKA F.	0	10	52	1	78	26	<b>167</b>
ZERBITZU ZENTRALA	0	0	0	0	0	107	<b>107</b>
<b>GUZTIRA GIPUZKOA</b>	<b>3</b>	<b>121</b>	<b>415</b>	<b>5</b>	<b>701</b>	<b>386</b>	<b>1631</b>
ARTE EDERRETAKO F.	0	9	84	0	63	37	<b>193</b>
EKON. eta ENPR. ZIENTZIAK	0	44	151	0	150	64	<b>409</b>
GIZ. eta KOM. ZIENTZIEN F.	0	38	98	0	169	54	<b>359</b>
IRAKASLEEN UE	0	3	83	0	56	27	<b>169</b>
NAUT. eta ITSAS MAK. GET	0	0	25	2	11	19	<b>57</b>
INGENIARITZA GET	0	42	136	2	252	71	<b>503</b>
ERIZAINZAKO UE	0	7	28	1	14	11	<b>61</b>
ENPRESA IKASKETEN UE	0	10	43	0	27	17	<b>97</b>
IND. ING. TEK. UE	0	9	75	0	72	31	<b>187</b>
MEATZEEN eta H LANEN UE	0	0	27	0	42	17	<b>86</b>
LAN HARREMANEN UE	0	1	32	1	18	14	<b>66</b>
ZIENTZIA ETA TEKNOL. F	2	127	163	1	367	96	<b>756</b>
MEDIKUNTZA F.	3	48	137	2	435	93	<b>718</b>
ZERBITZU ZENTRALA	0	0	0	0	2	606	<b>608</b>
<b>GUZTIRA BIZKAIA</b>	<b>5</b>	<b>338</b>	<b>1082</b>	<b>9</b>	<b>1678</b>	<b>1157</b>	<b>4266</b>
<b>GUZTIRA UPV/EHU</b>	<b>10</b>	<b>526</b>	<b>1801</b>	<b>15</b>	<b>2830</b>	<b>1756</b>	<b>6938</b>

1.


# OSASUN ARLOA

## 1.2.- OSASUN AZTERKETAK

### 1.2.1.- AURRETIAZKO AZTERKETAK

2009an, unibertsitatean sartzeko osasun-azterketa hauek egin dira (campusen arabera):

	ARABA: 37	
INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO UE		4
FARMAZIA F.		7
LETREN F.		11
ERREKTOREORDETZA		5
JARDUERA FISIKO eta KIROL ZIENTZIEN F.		3
IRAKASLEEN UE		3
ENPRESA IKASKETEN UE		1
GIZARTE LANGINTZAKO UE		2
	GIPUZKOA: 16	
KIMIKA F.		1
ERREKTOREORDETZA		7
UE POLITEKNIKOA		3
ARKITEKTURA GET		1
ERIZAINZAKO UE		3
ENPRESA IKASKETEN UE		1
	BIZKAIA: 65	
EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIEN F.		6
ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA F.		4
GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN F.		1
MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA F.		10
ARTE EDERRETAKO F.		3
ZERBITZU ZENTRALA		23
INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO UE		4
INGENIARITZA GET		6
MEATZEEN ETA HERRI LANEN ITUE		5
NAUTIKA ETA ITSAS MAKINERIAKO GET		3



## 1.2.2.- AZTERKETA ESPEZIFIKOAK

16 azterketa espezifikoko egin ditugu, den-denak 3. mailako instalazio erradioaktiboetan kapsula gabeko materiala erabili eta manipulatzegatik.

## 1.2.3.- PROBA ESPEZIFIKOAK

- 90 Profil ferrikoa
- 20 H. Tiroideoak
- 6 Birus serologia
- 30 Beste batzuk



## **1.2.4.- ALDIAN BEHINGO AZTERKETAK**

- .- UPV/EHU (GUZTIRA)
- .- ARABAKO CAMPUSA
- .- GIPUZKOAKO CAMPUSA
- .- BIZKAIKO CAMPUSA


## .- UPV/EHU (GUZTIRA)

### ALDIAN BEHINGO AZTERKETA MEDIKOAK


	KAT	TIT	IK	AZP	GUZTIRA
Irakasleen UE	2	12	4	3	21
Ingeniaritza UE	0	23	8	14	45
Gizarte Langintzako UE	0	1	3	5	9
Farmazia F.	6	18	21	14	59
Letren F.	7	20	13	9	49
Enpresa Ikasketen UE	0	1	3	7	11
Jard. Fis. eta Kirol Zien. F.	0	1	9	6	16
ZERBITZU ZENTRALA	0	0	0	39	39
<b>GUZTIRA ARABA</b>	<b>15</b>	<b>76</b>	<b>61</b>	<b>97</b>	<b>249</b>
Kimika F.	5	21	12	12	50
Irakasleen UE	2	8	5	7	22
Arkitektura GET	0	6	4	5	15
Erizaintzako UE	0	4	3	6	13
Enpresa Ikasketen UE	3	22	1	8	34
IITUE -Eibar	0	11	0	8	19
Eskola Politeknikoa	5	30	24	15	74
Zuzenbide F.	12	10	10	18	50
Filosofia eta Hezk. Zientz. F.	4	18	9	11	42
Psikologia F.	4	17	7	9	37
Informatika F.	5	35	21	5	66
ZERBITZU ZENTRALA	0	0	0	58	58
<b>GUZTIRA GIPUZKOA</b>	<b>40</b>	<b>182</b>	<b>96</b>	<b>162</b>	<b>480</b>
Arte Ederretako F.	1	12	1	15	29
Eko. eta Enpresa Zientzien F.	12	49	17	30	108
Giz. eta Kom. Zientzien F.	10	27	8	20	65
Irakasleen UE	0	27	8	12	47
Nautika eta Itsas Mak. GET	0	3	2	9	14
Ingeniaritza GET	14	60	52	30	156
Erizaintzako UE	1	2	1	4	8
Enpresa Ikasketen UE	0	18	1	7	26
IITUE	4	18	14	7	43
Meatzeen eta H. Lanen ITUE	1	10	6	10	27
Lan Harremanen UE	1	16	3	5	25
Zientzia eta Teknologia F.	54	78	99	28	259
Medikuntza eta Odontologia F	5	16	17	19	57
ZERBITZU ZENTRALA	0	0	0	215	215
<b>GUZTIRA BIZKAIA</b>	<b>103</b>	<b>336</b>	<b>229</b>	<b>411</b>	<b>1079</b>
<b>GUZTIRA UPV/EHU</b>	<b>158</b>	<b>594</b>	<b>386</b>	<b>670</b>	<b>1808</b>

## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA




## OSASUN AZTERKETAEN KOPURUAREN BILAKAERA




## **.- ARABAKO CAMPUSA**


## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ARABAKO CAMPUSA




## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 LETREN F.




## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 FARMAZIA F.




## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 IRAKASLEEN UE




## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 INGENIARITZA UE




## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 GIZARTE LANGINTZA UE



### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ENPRESA IKASKETEN UE




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 JF ETA KIROL ZIENTZIEN F






**ALDIAN BEHINGO OSASUN  
AZTERKETAK 2009  
ERREKTORETZAKO AZP ARABAKO CAMPUSA**




## **.- GIPUZKOAKO CAMPUSA**


## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 GIPUZKOAKO CAMPUSA




## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ARKITEKTURA GET




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ZUZENBIDE F




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 INFORMATIKA F




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ENPRESA IKASKETEN UE




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 FILOSOFIA ETA HZ F




## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 PSIKOLOGIA F




## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 KIMIKA F




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ESK. POLITEKNIKOA



### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 IRAKASLEEN UE




## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 EIBARKO IITUE






## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ERIZAINZAKO UE




## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ERREKTORETZAKO AZP GIPUZKOAKO CAMPUSA




## **.- BIZKAIKO CAMPUSA**


### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 BIZKAIKO CAMPUSA




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 INGENIARITZA GET




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIEN F




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 NAUTIKA ETA ITSAS MAK. GET




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 MEATZEEN ETA H. LANEN ITUE




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ENPRESA IKASKETEN UE




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 IITUE




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 IRAKASLEEN UE




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA F




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA F



### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN F




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ARTE EDERRETAKO F






## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 LAN HARREMANEN UE




## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ERIZAINZAKO UE



## ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK 2009 ERREKTORETZAKO AZP BIZKAIKO CAMPUSA

GUZTIRA: 608



Azterketa medikoei 3 atal dituzte:

- Historia klinikoa
- Azterketa fisikoa
- Proba osagarriak

Azken atalean laborategiko datuak eta proba teknikoak sartzen dira: hala nola EKG, audiometriak eta ikusmen-azterketak.

2009an 1808 pertsonari egin zaizkie azterketa mediko arruntak: UPV/EHUko langile-talde osoaren %26,1.


Datuak aztertuz gero, Administrazio eta Zerbitzuetako langileak (AZP) dira osasun-azterketen programan gehien parte hartzen dutenak (%38,2). Irakasleei dagokienez, honako hauek dira portzentajeak: KD %13,6; TIT %33 eta KAT %29,5.

Azterketen emaitzei erreparatuz, hona hemen datu aipagarrienak:


- .- Azterketa medikoa egin dutenen %41ek gehiegizko pisua dute, 25etik gorako gorputz-masa indizearekin.
- .- %11k arteria-hipertentsioa dute.
- .- %16k erre egiten dute eta beste %16k erretzeari utzi diotela adierazten dute.
- .- %10ek anomalia elektrokardiografikoren bat dute.
- .- %17k alterazioaren bat dute espirometrian, patroiz butxatzaile, murriztaile edo misto baten eraginez.
- .- %25ek baino gehiagok zertxobait galdua dute entzumena, belarri batean gutxienez.
- .- %30ek oftalmologoarengana jotzen dute ikusmen-arazoak direla-eta.
- .- Hiperlipemiak dira alterazio arruntak. Prebentzioaren ikuspegitik, behera egin du normaltasunaren atalaseak, eta gehiegizkotzat hartzen dira 200 mg/dl-tik gorako kolesterolak. Azterketa egin dutenen %20k kolesterol gehiegi dute.

Horiek horrela, esan daiteke UPV/EHUko langileek harrera ona egiten dietela aldian behingo prebentzio-azterketa medikoei, eta bereziki baloratzen dituztela bai antolakuntza (egutegiak, ordutegiak, erakunde laguntzaileak eta txosten medikoak) bai beste era bateko alderdiak ere (emaitzak, arretaren kalitatea, itxaronaldia eta azterketa egiten denetik emaitzak jasotzen diren arte igarotzen den denbora).


### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK UPV/EHU




### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK ARABAKO CAMPUSA



### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK GIPUZKOAKO CAMPUSA



### ALDIAN BEHINGO OSASUN AZTERKETAK BIZKAIKO CAMPUSA



# 1.3. ESKAINITAKO ZERBITZUAK

## KONTSULTAK ETA LARRIALDIAK

### 1.3.1.- ARABAKO CAMPUSA

Oinarrizko Osasun Unitateak 721 kontsulta egin ditu 2009an:

- Erizaintzako kontsultak	116
- Kontsulta telefonikoak	83
- Arreta Lan Istripuetan	13
- Arreta ikasleei eta bekadunei	12
- Arteria-tentsioa hartzea	32
- Injektagarriak	9
- Gripearen kontrako txertoa	98
- Tetano-Difteriaren kontrako txertoa	16
- Zainketak: lehenengoak eta ondorengoak	62
- Belarrietako tapoiak ateratzea	15
- Larrialdiak	11
- Odol-ateratzeak	254

### 1.3.2.- GIPUZKOAKO CAMPUSA

Oinarrizko Osasun Unitateak 2.223 kontsulta egin ditu:

- Kontsulta medikoak eta erizaintzakoak	1492
- Txostenak eta zertifikatuak	16
- Prestazio farmazeutikoa	291
- Arteria-tentsioa hartzea	136
- Tabakoa uzteko laguntza	6
- Injektagarriak	31
- Gripearen aurkako txertoa	110
- Tetano-Difteriaren kontrako txertoa	13
- Beste txerto batzuk	5
- Gluzemiak	54
- Zainketak: lehenengoak eta ondorengoak	32
- Tapoiak ateratzea	25
- Larrialdiak	12

### 1.3.3.- BIZKAIKO CAMPUSA

Oinarrizko Osasun Unitateak 3.573 kontsulta egin ditu:

- Kontsulta medikoak eta erizaintzakoak	1233
- Txostenak	
• Ergonomia	31
• Lanpostu-aldaketak	1
• Egiaztagiriak	22
• Amatasuna	2
• Jasang. errad. ionizatzaileekiko	12
• Jardunaldi bereziak	4
• Lan-murrizketak	1
- Ziurtagiri mediko ofizialak	6
- Tabakoa uzteko laguntza	11
- Prestazio farmazeutikoa	1252
- Arteria-tentsioa hartzea	242
- Injektagarriak	47
- Zainketak: lehenengoak eta ondorengoak	42
- Tapoiak ateratzea	43
- Larrialdiko arreta	30
- Kanpoko larrialdiko arreta	12
- Beste prozedura batzuk	70
- Gripeareen kontrako txertoa	408
- Tetano-Difteriaren kontrako txertoa	54
- B Hepatitisaren kontrako txertoa	11
- Beste txerto batzuk	4
- A Gripeareen kontrako txertoa	31
- Amorruren aurkako txertoaren ondorengo azterketa	4



# 1.4. ERIKORTASUN ARRUNTA


## ALDI BATERAKO EZINTASUNAK (ABE)

Aldi baterako ezintasunak eragindako baja-kopuruen lauki konparatiboa, hilabeteen eta zioen arabera:

	2008					2009				
	GA	LI	AMA	MUF	G	GA	LI	AMA	MUF	G
<b>U</b>	197	4	17	35	253	109	4	15	40	168
<b>O</b>	163	4	11	63	241	88	8	11	37	144
<b>M</b>	71	4	10	31	116	98	5	11	39	153
<b>A</b>	111	2	17	30	160	77	1	13	25	116
<b>M</b>	96	2	10	26	134	82	3	8	25	118
<b>E</b>	73	1	13	15	102	83	0	7	13	103
<b>U</b>	58	2	8	25	93	54	2	11	10	77
<b>A</b>	27	1	9	3	40	52	1	17	9	79
<b>I</b>	111	1	8	35	155	117	5	19	35	176
<b>U</b>	124	5	11	31	171	156	0	13	53	222
<b>A</b>	101	4	12	28	145	169	0	15	61	245
<b>A</b>	91	2	10	22	125	73	2	12	21	108
<b>GUZT.:1223</b>	<b>32</b>	<b>136</b>	<b>344</b>	<b>1735</b>		<b>1158</b>	<b>31</b>	<b>152</b>	<b>368</b>	<b>1709</b>


1998ko irailaren 18ko Agindu bidez (BOE 1998ko irailaren 25), ezabatu egin da diagnostikoa edo ezintasunaren arrazoia adierazten zuen eremua enpresari ematen zaion aldi baterako ezintasun-bajaren agiri medikotik. Beraz, agindua indarrean dagoenetik, Lan Osasun Zerbitzuek ez dute informazio hori, eta ezin dute bajaren zioa jakin pazientearen edo haren familia-medikuaren laguntzarekin ez bada.

## ALDI BATERAKO EZINTASUNAK BAJA KOPURUA




GUZTIRA: 1.709

## ALDI BATERAKO EZINTASUNAK ERITASUN ARRUNTA




GUZTIRA: 1158

## ALDI BATERAKO EZINTASUNAK MUFACE





GUZTIRA: 368


## ALDI BATERAKO EZINTASUNAK LAN ISTRIPUAK




GUZTIRA: 31



## ALDI BATERAKO EZINTASUNA MUFACE



## ALDI BATERAKO EZINTASUNA LAN ISTRIPUA



# 1.5. LAN ISTRIPUAK

Medikuntza eta Odontologia Fakultateko irakasle batek ACV (ictus) bat izan zuen fakultatean. Ospitalera eraman zuten, eta 2009ko urriaren 16an hil zen. Gaixotasun hau lan-istripuztat hartu zen.

**LANGILE TALDEA****ISTRIPUA*****Istripuak In Itinere***



Irakaslea	Trafiko-istripua
Irakaslea	Erorketa eskailetan
Irakaslea	Trafiko-istripua
AZP	Erorketa elur/izotzagatik
AZP	Trafiko-istripua
AZP	Auto-harrapaketa
AZP	Trafiko-istripua
AZP	Trafiko-istripua
AZP	Trafiko-istripua
AZP	Txorkatila bihurritzea
AZP	Trafiko-istripua
AZP	Trafiko-istripua
AZP	Trafiko-istripua
AZP	Trafiko-istripua

***Istripuak EZ In Itinere***

II	ACV
II	Trafiko-istripua, lanaldiaren barruan.
II	Gehiegizko ahalegina
AZP	Erorketa
AZP	Harrapatuta gelditzea bi objekturen artean
AZP	Erorketa
AZP	Erorketa
AZP	Gehiegizko ahalegina
AZP	Erorketa
AZP	Erorketa
AZP	Gehiegizko ahalegina
AZP	Erorketa maila batetik bestera
AZP	Gehiegizko ahalegina
AZP	Gehiegizko ahalegina
AZP	Makina batek harrapatzea
AZP	Gehiegizko ahalegina
AZP	Gehiegizko ahalegina


Ikus MUTUALIAren 2009ko ISTRIPUEN AZTERKETA eranskina.






## EZINTASUNAREN IRAUPENA EGUN NATURALAK

ISTRIPUAK LANEKO BAJAREKIN – 2009



## BANAKETA LAN HARREMANAREN ARABERA

ISTRIPUAK LANEKO BAJAREKIN - 2009



## 1.6.

# LANEKO GAIKOTASUNAK

2009an ez da bajarik egon Laneko Gaixotasunagatik, eta laneko gaixotasun bat errekonozitu da ahots-harrietako noduluengatik.

1.7.

# HILKORTASUNA

## Heriotzak 2009an

<b>CAMPUSA</b>	<b>IKASTEGIA</b>	<b>POSTUA</b>	<b>ADINA</b>	<b>SEXUA</b>
Bizkaia	MEDIKUNTZA F.	TITULARRA	54	Gizonezkoa
Araba	FARMAZIA F. Gizonezkoa	TITULARRA	49	
Bizkaia	MEDIKUNTZA F. Gizonezkoa	TITULARRA	53	
Gipuzkoa	INFORMATIKA F.	AZP	61	Gizonezkoa
Bizkaia	ZIENTZ. ETA TEK. F. Emakumea	AZP	53	
Bizkaia	MEDIKUNTZA F. Emakumea	TITULARRA	59	
Bizkaia	MEDIKUNTZA F. Gizonezkoa	LAGUNTZAILEA	40	
Bizkaia	MEDIKUNTZA F. Gizonezkoa	ELKARTUA	55	
Araba	LETREN F. Emakumea	KATEDRADUNA	62	

**2009ko EZINTASUN IRAUNKOR ABSOLUTUAK**

<b>CAMPUSA</b>	<b>IKASTEGIA</b>	<b>POSTUA</b>	<b>ADINA</b>	<b>SEXUA</b>
Araba	IRAKASLEEN UE Emakumea	TITULARRA	55	
Bizkaia	IRAKASLEEN UE Gizonezkoa	TITULARRA	62	
Bizkaia	MEDIKUNTZA F. Gizonezkoa	KATEDRADUNA	64	
Gipuzkoa	ESK. POLITEKNIKOA Gizonezkoa	KATEDRADUNA	65	
Bizkaia	MEATZEEN ETA HL ITUE Gizonezkoa	AZP	57	
Bizkaia	LIBURUTEGI NAGUSIA Emakumea	AZP	64	

# 1.8.

# JARDUEREN PROGRAMA

## 1.8.- JARDUEREN PROGRAMA

Aipatzekoa da plan honen aurkezpena eta onespina: [Euskal Herriko Unibertsitatearen Lan Arriskuen Prebentziorako Plana \(UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartua 2009ko urriaren 28an\)](#).

### EGINIKO PROIEKTUAK

- 1.- TXERTATZE KANPAINAK
- 2.- LAN SEGURTASUNA ETA OSASUNA
- 3.- EPIDEMIOLOGIA ETA OSASUN PUBLIKOA
- 4.- PSIKOSOZIOLOGIA

### 2010eko PROIEKTUAK

- 1.- TXERTAKETAK
- 2.- LANGILE TALDEA HANDITZEA
- 3.- INSTALAZIO BERRIAK
- 4.- AURREKONTUA

# EGINIKO PROIEKTUAK

## 1.- TXERTATZE KANPAINAK

### .- HEPATITISAREN AURKAKO TXERTAKETA


Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloak B Hepatitisaren birusaren aurkako txertaketarekin jarraitu du, eta 11 dosi eman ditu 2009an.

### .- TETANOSAREN AURKAKO TXERTAKETA

2009an tetanosaren aurkako txertatze-kanpainarekin ere jarraitu dugu (83 dosi). Difteria-tetanosaren txertoa erabili dugu.

### .- GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA

Gripearen aurkako XIII Kanpainan, 616 lagunek hartu dute txertoa.



### .- BESTE TXERTO BATZUK

A gripearen aurkako 31 txerto jarri ditugu, eta beste mota bateko 9 txerto.



## 2.- LAN SEGURTASUNA ETA OSASUNA

### .- SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEA

Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloko ordezkariak Lan Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileretan parte hartu dute, Euskal Herriko Unibertsitateko Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Akordioan eta UPV/EHUko Langileen hitzarmen kolektiboan zehaztuta dagoen moduan.

Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloak langile batzuen eskaera jaso du beren lanpostuetan eserleku ergonomikoak erabiltzeko, eta traumatologiako txostenak aurkeztu dituzte horretarako. Historial medikoak aztertu ondoren, lanpostuak egokitu eta material ergonomikoa instalatu dugu, Campuseko Kudeatzaileordetzaren laguntzarekin.

Bestetik, aipatzekoa da Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloaren parte-hartzea hainbat ebazpen eta akordiotan: zehazki, 2005eko azaroaren 18ko akordioan, langile funtzionarioen akordio arautzailearen lan-baldintzak hobetzeari buruzkoa, eta langile funtzionarioen batzorde paritarioaren 2005eko ekainaren 22ko akordioan, kasu espezifikoetan egin beharreko saio bereziei buruzkoa.

### .- PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Prebentzio Zerbitzuaren web orria mantentzea.

- Istripuetan egin beharrekoari buruzko gidaliburua.

- Lanpostuak ikuskatzea.

- Tabakismoaren kontrako borroka, erretzeari utzi nahi dioten pertsonei tratamendua eskainiz.

### 3.- EPIDEMIOLOGIA ETA OSASUN PUBLIKOA

Elkarlana Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin A gripearen aurkako txertoaren kanpainan.

### 4.- PSIKOSOZIOLOGIA

Prebentzio Zerbitzuko Buruak hainbat ekimen burutu ditu arlo honetan (izendatzeke dagoen ALDEZLEAREN ardura liratekeenak), UPV/EHUK eta erakunde sindikalek jazarpen-arloan prebentzioa eta soluzioak adosteko hartutako erabakiaren 21.3 artikulua araberak, eta martxan jarri da ere Batzorde Arbitrala.

## 2010eko PROIEKTUAK

### 1.- TXERTAKETAK

Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloak txertaketa-kanpainekin jarraituko du: gripearen aurkakoa, VHBaren aurkakoa eta difteria-tetanosaren aurkakoa.

### 2.- LANGILE TALDEA HANDITZEA

Erreferentzia Plantillaren 2. fasea dela-eta, Lan Arriskuen Prebentziorako Goi Teknikari bat (TSPRL) gehituko zaio Prebentzio Zerbitzuko lan-taldeari.

### 3.- INSTALAZIO BERRIAK

Bizkaiko Campusa handitzeko lanak direla-eta, instalazio berriak izango ditugu Leioan eta Bilbon.

### 4.- AURREKONTUA

2009ko aurrekontua handitu egingo da.

2.

# ARLO TEKNIKOA

## **2.1 PREBENTZIO JARDUEREN ANTOLAMENDUA**

UPV/EHUK, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan ezarritakoa aitzat hartuz (39/1997 ED), bere Prebentzio Zerbitzua antolatzea erabakitzen du, 2003ko apirilaren 7ko errektore-ebazpenaren bidez, lau espezialitateekin.

## **2.2 EGINIKO JARDUERAK**

### **AURKIBIDEA**

- 1.- Antolakuntza paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerak
- 2.- Prebentzioaren planifikazioa
- 3.- Arriskuen ebaluazioa
- 4.- Prebentzio-neurriak hartzea
- 5.- Enpresa-jardueren koordinazioa
- 6.- Larrialdi-planak
- 6.1.- Larrialdi-planen txostenak eguneratzea
- 6.2.- Ezarpena: prestakuntza eta ebakuazio-simulakroak
- 7.- Prestakuntza
- 8.- Aldian behingo kontrolak. Segurtasun-azterketak
- 9.- Arauzko azterketak
- 10.- Lan-ingurunearen kontrolak
- 11.- Istripuen eta gertakarien analisisia
- 12.- Ingurumena
- 13.- Beste jarduera batzuk

## ARABAKO CAMPUSA

### **1.- Antolakuntza paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerak**

2009ko bilerak:

otsailaren 3an,  
maiatzaren 28an,  
urriaren 7an,  
abenduaren 16an.

### **2.- Prebentzioaren planifikazioa**

Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileretan, 2009an lan-arriskuen prebentzioan eginiko lanak aurkeztu dira.

### **3.- Arriskuen ebaluazioa**

2009. urtean zehar, eraikinen araberako arriskuen ebaluazioa eguneratzeari ekin diogu, eta jardueren araberako arriskuen ebaluazioari dagokionez, hura zehazten duen dokumentu-zirriborroa landu da.

### **4.- Prebentzio-neurriak hartzea**

Neurri zuzentzaileak Farmazia Fakultatean:

- Larrialdietarako 4 barra ezartzea elikagaien solairuko suteen aurkako 2 ateetan.
- Sirena-puntuak jartzea elikagaien solairuan.
- Ikastegiaren ebakuaziorako seinaleak jartzea.
- Filologia eraikinera ematen duen larrialdi-atearen pertsiana konpontzea.
- Sarrerako alfonbrak aldatzea RENFEko atean.
- Eraikina sektoreka banatzea suteen aurkako ateen bitartez.

Neurri zuzentzaileak Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuen Zentroan:

- Ikastegiaren ebakuaziorako seinaleak jartzea.
- "Hemen zaude" afixak ipintzea pasilloetan.
- Armairu bat jartzea suhiltzaileentzat.

Neurri zuzentzaileak Unibertsitate Pabilioian:

- Erretenedore elektromagnetikoak konpontzea.
- Istripu bat dela-eta, burdinsareak aldatzea Liburutegiaren sarreran.

Neurri zuzentzaileak Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan:

- Sirena puntu berriak jartzea beheko solairuan eta lehen solairuan.
- "Hemen zaude" kartelak ipintzea pasilloetan.
- Ebakuazio-argibideak egokitzea Larrialdi Planaren arabera.

Neurri zuzentzaileak Irakasleen Unibertsitate Eskolan:

- Sirena-puntu berriak Administrazioan eta Kafetegian.

Neurri zuzentzaileak Letren Fakultatean:

- Ixe-selektoreak suteen kontrako 7 ate bikoitzetan.
- “Hemen zaude” kartelak ipintzea pasilloetan.

Neurri zuzentzaileak Ikasgelategian:

- “Hemen zaude” kartelak ipintzea pasilloetan.
- Egiturak jartzea su-itzalguetarako.

Neurri zuzentzaileak Medikuntza Ikasgunean:

- “Hemen zaude” kartelak jartzea pasilloetan.

Neurri zuzentzaileak Gizarte Langintzan:

- Istripu bat dela-eta, burdinsareak aldatzea eraikinaren sarreran.

Beste batzuk:

- Aurrekontua eskatzea suteen kontrako elementuen eta ebakuazio-bideen seinalizaziorako.
- Aurrekontua eskatzea RF atek konpontzeko.
- CO2 su-itzalguak jartzea hainbat ikastegitan.

## **5.- Enpresa-jardueren koordinazioa**

Koordinazio-lanak egin ditugu Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuen Zentroan laborategiko altzariak muntatu eta gasak aspiratzeko bitrinak instalatzen dituen enpresarekin.

## **6.- Larrialdi-planak**

### **6.1.- Larrialdi-planen txostenak eguneratzea**

2009an ikastegi hauetako larrialdi-planen txostenak eguneratu ditugu:

- Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola
- Errektoreordetza
- Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuen Zentroa
- Las Nieves ikastegia.

Bestetik, amaitzear dugu Ingeniaritza UEko larrialdi-planaren eguneratzea.

### **6.2.- Ezarpena: prestakuntza eta ebakuazio-simulakroak**

Enplegu Eskaintza Publikoak eragindako aldaketen eta ebakuazio-simulakro nahiz zuzendaritza-aldaketen ondorioz, larrialdi-taldeak egokitu dira.

Ikastegietan ebakuazio-simulakroak egin aurretik, plana ezagutarazteko bilerak egin ditugu ebakuazio-taldeekin. Gainera, txosten bat banatu da ere euskarri elektronikoan ikastegiko langileen artean, larrialdietan zer egin azaltzeko.

Simulakroei dagokienez, ondoko koadroak 2009an eginikoak zerrendatzen ditu:

**IKASTEGIA****AZKEN SIMULAKROA**

MED. IKASGUNEA	2009ko urriaren 27
INGENIARITZA UE	2009ko azaroaren 16
IKASGELATEGIA	2009ko azaroaren 13
PABILIOIA	2009ko azaroaren 27
GIZARTE LANGINTZA	2009ko urriaren 22
ERREKTOREORDETZA	2009ko apirilaren 2
FARMAZIA	2009ko azaroaren 20
LETRAK 1	2009ko maiatzaren 29
LETRAK 2	2009ko azaroaren 6
JF eta KIROL ZIEN. F.	Obretan
ENPRESA IKASKETAK	2009ko abenduaren 9
IRAKASLEEN UE	2009ko azaroaren 28

**EBAKUAZIO SIMULAKROA FLANDES I ERAIKINEAN**

Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikaria: Luis Escribano

**DATUAK:**

Mota: alarma ebakuazio orokorrarekin

Simulazioa: kontrolatu gabeko sutea

Lekua: sotoko artxibategia

Ordua: 11:00

Eguraldia: zirimiria

Simulakroaren datuak eta faseak:

Larrialdia egiaztatzeko denbora: 40 s

Alarma aktibatzea eta kanpoko zerbitzuei deitzea

Kanpora irtetea eta elkartze-puntuan elkartzea: 3 min 10 s

Langileen erantzuna: ona

Ebakuatutako pertsona-kopurua: 25, gutxi gorabehera

**EBAKUAZIO SIMULAKROA GIZARTE LANGINTZA ESKOLAN**

Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikaria: Luis Escribano

**DATUAK:**

Mota: alarma ebakuazio orokorrarekin

Simulazioa: Lehen Interbentzioko Taldeak kontrola ezin dezakeen sutea

Lekua: sotoko artxibategia

Ordua: 10:30

Eguraldia: euria

Simulakroaren datuak eta faseak:

Larrialdia egiaztatzeko denbora: 1 min

Lehen Interbentzioko Taldea biltegira iristeko denbora: 1 min 10 s

Alarma aktibatzea eta kanpoko zerbitzuei deitzea

Kanpora irtetea eta elkartze-puntuan elkartzea: 3 min



Langileen erantzuna: ona. Euria ari zuenez, eraikinetik kanpoko ibilbidea bustia zegoen: bai elkartze-puntura iristeko tartea eta baita Gizarte Langintzako eraikina Letren Eraikinarekin lotzen duen barruko patioko pasabideak ere. Hala ere, ebakuazioa nahiko azkar egin zen, irteera guztiak erabiliz eta erritmo onean, eta ez zen jendepilaketa edo gorabehera handirik egon.

Ebakuatutako pertsona-kopurua: 200etik gora.

### **EBAKUAZIO SIMULAKROA ENPRESA IKASKETEN ESKOLAN**

Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikaria: Luis Escribano

#### **DATUAK:**

Mota: alarma telefonogunetik ebakuazio orokorrarekin

Ordua: 17:45

Eguraldia: hotza eta lehorra

Simulakroaren datuak eta faseak:

Alarma aktibatzea eta kanpoko zerbitzuei deitzea

Kanpora irtetea eta elkartze-puntuari elkartzea: 3:40 min

Kafe-makina, Gradu Aretoa, artxibategia eta komunak ebakuatzen dituen pertsonaren ibilbidearen denbora: 4:30 min

Langileen erantzuna: irteerako ateak ondo erabili eta banaketa ona izan bazen ere, kanpoan hotz zegoenez, lagun batzuk beheko solairuan gelditu ziren eta beste batzuk ate nagusian, eta ez ziren Elkartze Puntura hurbildu.

Ebakuatutako pertsona-kopurua: 75, gutxi gorabehera

Ate nagusia: 35 pertsona

Elkartze Puntuaren aurreko fatxadako ateak: 25 pertsona

15 lagun gelditu ziren beheko solairuko sarreran

### **EBAKUAZIO SIMULAKROA IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLAN**

Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikaria: Luis Escribano

#### **DATUAK:**

Mota: alarma ebakuazio orokorrarekin

Simulazioa: kontrolatu gabeko sutea beheko solairuan

Ordua: 11:30

Eguraldia: lehorra

Simulakroaren datuak eta faseak:

Alarma aktibatzea eta kanpoko zerbitzuei deitzea

Kanpora irtetea eta elkartze-puntuari elkartzea: 6 min

Ebakuazio-irteeren erabilera egokia, eta nahiko azkarra.

Ebakuatutako pertsona-kopurua: 300etik gora

## **EBAKUAZIO SIMULAKROA INGENIARITZA UNIBERTSITATE ESKOLAN**

Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikaria: Luis Escribano

**DATUAK:**

Mota: alarma ebakuazio orokorrarekin eta eraikineko lau irteerak kontrolatzea

Ordua: 12:00

Eguraldia: lehorra

Simulakroaren datuak eta faseak:

Ebakuazio-alarma aktibatzea

Kanpora irtetea eta elkartze-puntuak elkartzea: 3 min

Langileen erantzuna: ona

Ebakuatutako pertsona-kopurua: 300, gutxi gorabehera

Irteerako ate nagusiak:

I1: 12 pertsona, 2 minutu alarma jotzen hasi zenetik

I2: 21 pertsona, 2 minutu alarma jotzen hasi zenetik

I3: 200 pertsona, 3 minutu alarma jotzen hasi zenetik

I4: 20 pertsona, 2 minutu alarma jotzen hasi zenetik

Elkartze-puntua: 3 min 40 s alarma jotzen hasi zenetik

## **EBAKUAZIO SIMULAKROA PABILIOIAN**

Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikaria: César Saiz

**DATUAK:**

- LEKUA: PABILIOIA

- ORDUA: 12:30

- EBAKUATUTAKO PERTSONAK: 30, GUTXI GORABEHERA

**EBAKUAZIOAREN IRAUPENA:**

AREA / ZONA / ERAIKINA      DENBORA (sirena jotzen hasten denetik)

ELKARTZE PUNTUA              2 min

## **EBAKUAZIO SIMULAKROA ERREKTOREORDETZAN**

Lan Arriskuen Prebentzioko teknikaria: Cesar Saiz

**DATUAK:**

- LEKUA: ERREKTOREORDETZA

- ORDUA: 12:00

- DATU-HARTZAILEA: CESAR SAIZ

- EBAKUATUTAKO PERTSONAK: 17 GUTXI GORABEHERA

**EBAKUAZIOAREN IRAUPENA      DENBORA (sirena jotzen hasten**

AREA / ZONA / ERAIKINA      denetik)

ELKARTZE PUNTUA              1 min 30 s

**EBAKUAZIO SIMULAKROA FARMAZIA FAKULTATEAN**

Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikaria: Luis Escribano

**DATUAK:**

Mota: alarma ebakuazio orokorrarekin

Ordua: 12:00

Eguraldia: lehorra

Simulakroaren datuak eta faseak:

Alarma aktibatzea eta kanpoko zerbitzuei deitzea.

Kanpora irtetea eta elkartze-puntuak elkartzea: 5:00 min

Langileen erantzuna: oso banaketa ona eta ebakuazio-erritmo egokia

Ebakuatutako pertsona-kopurua: 650, gutxi gorabehera

Ipar atea: 250 pertsona

Hego atea : 100 pertsona

Sortalde atea : 100 pertsona

Sartalde atea: 200 pertsona

**EBAKUAZIO SIMULAKROA LETREN FAKULTATEKO ERAIKIN NAGUSIAN**

Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikaria: Cesar Saiz

**DATUAK:**

- ORDUA: 13:15

- LARRIALDIA: SUTEA BEHEKO SOLAIRUAN

- OKUPAZIOA GUZTIRA, GUTXI GORABEHERA: 231

**EBAKUAZIOAREN IRAUPENA:**

<b>EBAKUAZIOA ZONAKA</b>	<b>EBAKUATUTAKO PERTSONAK</b>	<b>DENBORA (sirena jotzen hasten denetik)</b>
EBAKUAZIOA RENFE ATETIK	14	3 min
EBAKUAZIOA PATIOTIK	147	4 min
EBAK. FARMAZIA FAK. ALBOKO ATETIK	23	3 min
EBAK. FLANDES ERAIKINEKO ALBOKO ATETIK	47	3 min 30 s
ELKARTZE PUNTUA (231 pertsona gutxi gorabehera)	5 min	

**EBAKUAZIO SIMULAKROA MEDIKUNTZA IKASGUNEAN**

Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikaria: Luis Escribano

**DATUAK:**

Mota: alarma ebakuazio orokorrarekin

Simulazioa: kontrolatu gabeko sutea

Lekua: galdara-gela

Ordua: 13:00

Eguraldia: eguzkitsua

Simulakroaren datuak eta faseak:

Larrialdia egiaztatze denbora: 30 s

Alarma aktibatzea eta kanpoko zerbitzuei deitzea

Kanpora irtetea eta elkartze-puntuaren elkartzea: 1 min 10 s

Langileen erantzuna: oso ona.

Ebakuatutako pertsona-kopurua: 30, gutxi gorabehera.

## **EBAKUAZIO SIMULAKROA LAS NIEVES IKASTEGIAN**

Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikaria: Luis Escribano

**DATUAK:**

Ikastegiko ebakuazio-ate eta irteera guztien funtzionamendua aztertu zen ebakuazio orokorra egiteaz batera. 40 bat lagunek lagundu zuten ateen kontrolean eta ebakuazio-taldeen lanean.

Mota: alarma ebakuazio orokorrarekin eta ate elektromagnetikoen sistema kontrolatzea

Ordua: 12:00

Eguraldia: lehorra

Simulakroaren datuak eta faseak:

Alarma aktibatzea eta kanpoko zerbitzuei deitzea

Kanpora irtetea eta elkartze-puntuaren elkartzea: 4 min

20 laguneko talde bat 8 minutuko atzerapenarekin irten zen, ez zutelako alarma ondo entzun.

Langileen erantzuna: ona.

Ebakuatutako pertsona-kopurua: 800, gutxi gorabehera.

Arabako campuseko Ikasgelategiak erabilera asko ditu (irakaskuntza, Institutuak, Liburutegia, Sindikatuak), eta haren okupazioa ere era askotakoa da: iraunkorra (Institutuak), ez-iraunkorra baina planifikatua (Ikasgelak), okupazio ezagun baina aleatorioa (Sindikatuak), okupazio ezezagun eta aleatorioa (Liburutegia)..., eta horrek kontrol handiagoa eskatzen du segurtasun-instalazioen mantenimenduan.

## **7.- Prestakuntza**

Azaroaren 18an, suteen kontrako babes-sistemaz arduratzen den enpresak ikastaro bat eman zuen Gasteizko Suhiltzaileen Zerbitzuaren lokaletan. Lau orduko ikastaroan, sua itzaltzeko moduak aztertu ziren, 1 orduko lau modulutan, eta 16 lagunek parte hartu zuten ikastaroan.

## **8.- Aldian behingo kontrolak. Segurtasun-azterketak**

### **8.1. Aldian behingo kontrolak**

Campuseko eraikin bakoitzeko suteen kontrako elementuak eta seinalizazioa aztertu ditugu, 2009ko abuztuan eta abenduan.

## **8.2. Segurtasun-azterketak**

RF ateen funtzionamendua aztertzea Letren Fakultatean, eta suteen kontrako elementuak berrikustea.

## **9.- Arauzko azterketak**

Industria-erregelamenduaren mende dauden campuseko elementuak aztertzea, Arkitektura eta Obren Zerbitzuaren ikuskaritzapean.

## **10.- Lan-ingurunearen kontrolak**

Tenperatura-neurketak Letren Fakultatean, eta argi-neurketak Farmazia Fakultateko elikagaien solairura iristeko eskaileretan.

## **11.- Istripuen eta gertakarien analisia**

2009an 15 istripu izan dira campusean; horietatik 10 bajarekin. Bost istripu *in-itinere* izan dira, eta horietatik 2 bajarekin. Beste istripuak era askotakoak izan dira: erorketak, gehiegizko ahaleginak, zanpaketak eta zipriztintzeak.

Istripuak aztertu ditugu banan-banan, atal honetako helburua betetzeko, eta prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak proposatu eta hartu ditugu, bai tekniko-informatiboak, bai antolakuntzakoak.

## **12.- Ingurumena**

Ekainaren 1ean, Enplegu Eskaintza Publikoaren ondorioz, ingurumen-kudeaketarako teknikaria Arabako campuseko prebentzio-teknikari bihurtzen da, eta Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuen Zentrorako Irekitze Baimena lortzeko egin beharrekoak egiteko eskatzen dio Arabako Kudeatzaileordetzak. Ondorioz, inkesta bat lantzen da Errektoreordearen laguntzarekin, eta Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuen Zentroko laborategiek izango dituzten arduradunei bidaltzen zaie; denek erantzuten dute. Bildutako informazioarekin eta eraikinaren baliabideak kontuan hartuz, Hondakinak Kudeatzeko Plan bat egiten da, ekipamendu berria ia gehitu beharrik gabe eta bateragarria aurreikusitako langile-taldearekin. Berehala, ingurumen-kudeaketarako teknikari berriak plana garatzeari ekiten dio.

## **13.- Beste jarduera batzuk**

Informazio bildu eta eguneratu dugu agente biologikoei eta Farmazia Fakultateko laborategi biologikoetan substantzia horiek erabiltzen dituzten pertsonen buruz.

Lehen urratsak ATEX zonak mugatzeko.

BATUBIDEK antolatutako bileretan parte hartzea.

Urteko galdetegia bidali zaie Substantzia Kimiko Katalogatuen eta Ez Katalogatuen Erabiltzaileei, eta denek erantzun dute. Bildutako informazioa Barne Ministeriora bidali dugu.

Irtenbide negoziatuak Industria Sailak eginiko eskaera bereziei.

# GIPUZKOAKO CAMPUSA

## 1.- Antolakuntza paritariora. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerak

Lau bilera egin dira 2009an; azkena, abenduaren 10ean.

## 2.- Prebentzioaren planifikazioa

2008ko Campuseko Batzordearen azken bileran, Gipuzkoako Campuseko 2009ko prebentzio-jardueraren planifikazioa aurkeztu zen. 2010eko batzordearen lehen bileran, planifikazio hori aztertu eta 2009an lan-arriskuen prebentzioan eginiko jarduera aztertzen da.

Gainera, Gipuzkoako Campuseko prebentzio-jardueraren planifikazioa egin dugu 2010. urterako.

## 3.- Arriskuen ebaluazioa

- 2009an berrikusi eta eguneratu egin dugu arriskuen ebaluazioa eraikin/lanpostuen arabera, eta ebaluazio bera landu dugu jardueren arabera. Dagoeneko idatzita dago ebaluazio horren lehen dokumentua.
- Ezin izan dugu ekipo-, makina- eta instalazio-arriskuen ebaluazio osoa egin.
- Ezin daiteke Irakasle-multzoaren ebaluazioa egin SEHTRA/MEDTRA aplikazioan “lanpostu” kontzeptua berregokitu arte.
- Ezin daiteke faktore psikosozialen ebaluazioa egin (ISTAS XXI), Donostiako Campus Arteko Batzordeko akordio-faltagatik.
- Egiteko: lan-ekipoen egokitzapena, ATEX.

## 4.- Prebentzio neurriak hartzea

- Postontziak ipintzea suhiltzaileentzako dokumentazioarekin Villa Soroa, Villa Asuncion eta Arbide II eraikinetan. ONDOANen dokumentazio berria jartzea.
- Suteen aurkako seinalizazioa osatzea eta Unibertsitate Eskola Politeknikoaren ebakuazioa.
- Suteen aurkako seinalizazioa aztertu eta egokitzea, eta campuseko ikastegien ebakuazioa (Erizaintzako UE, Medikuntza Ikasgunea,...).
- Lehengaiak eta hondakinak biltzeko aretoak martxan jartzea Korta eraikinean.

- Agente biologikoak erabiltzen dituzten laborategien akreditazioa (behin behinekoa 2009), Kimika Fakultatean (1 eta 2 babes-mailak) eta Psikologia Fakultatean (1 babes-maila).
- Arrisku biologikoko seinalizazioa Psikologia Fakultateko laborategietan (1 babes-maila)
- Obra-ikustaldiak urte osoan zehar.
- Kimika Fakultateko laborategi guztietako ikusketen I Fasea amaituta, neurri zuzentzaileak eta prebentzio-neurriak hartu dira.

## **5.- Enpresa-jardueren koordinazioa**

Jarduerak koordinatzea kontratekin:

- UNI-2 (garbiketa)
- DELTA (segurtasuna).
- GOROLDI (lorenzaintza)

Enpresa-jarduerak koordinatzeko bilerak egin dira aldiaren behin.

## **6.- Larrialdi-planak**

### **6.1.- Larrialdi-planen txostenak eguneratzea**

2009an, ONDOAN enpresak ikastegi hauen Larrialdi Planen zirriborroak entregatu ditu:

- UE Politeknikoa
- Erizaintzako UE /Medikuntza Ikasgunea
- Barriola eraikina (Ikastegia)
- Eibarko IITUE (Eibar)

Korta eraikinaren Larrialdi Planean antzeman diren gabezia ugarien ondorioz, plana berriatzi da eraikin horretarako, haren Zuzendaritzarekin elkarlanean.

Gipuzkoako Campuseko eraikin guztiek Larrialdi eta Autobabeserako Plana dute, hainbat ezarpen-mailarekin. Gidaliburuen ezarpen-prozesuan, prestakuntza-saioak egin, eraikinaren babeserako taldeak eratu eta izendatu, eta ebakuazio-simulakroak egin dira urtero.

Plan horiek hainbat neurri zuzentzaile eta prebentibo ezartzen dituzte. Ekimen hauetarako aurrekontua 2009ko urrian argitaratutako txosten batean jaso zen: 3.629.400 euro (BEZik gabe).

## 6.2.- Ezarpena: prestakuntza eta simulakroak

2009an ebakuazio-simulakroak egin dira Gipuzkoako Campuseko ikastegi hauetan:

- Kimikako Fakultatea
- Korta eraikina
- Erizaintzako UE / Medikuntzako Ikasgunea
- UE Politeknikoa

## 7.- Prestakuntza

- Korta eraikina:
  - 3 orduko 2 ikastaro: “Hondakin arriskutsuen manipulazioa eta kudeaketa”.
  - 4 orduko 1 ikastaro: “Korta eraikineko Larrialdi Plana”.

Egiteko dagoena: Leioan 3 ikastaroen asistentzia-egiaztagiriak idatzi eta bidali behar dira.
- Bide Segurtasunari buruzko aurrez aurreko 4 orduko saioak + 2 lan-saio, Leioan eta Donostian, ARCHIMEDES-CIVITAS 7 ikerketa-proiektuak Campus Errektoreordetzen laguntzarekin antolatutako “Mugikortasun seguru eta iraunkorra” ikastaroaren barnean.
- Langile berrientzako informazioa/prestakuntza: langile berri guztiei, dagokion azterketa medikoaren ondoren, ordu erdiko prestakuntza-saio bat eskaintzen zaie gutxienez. Saio hori luzeagoa izan daiteke lanpostuak arrisku bereziak dituenen (laborategiak, etab.). 16 langile berri sartu dira:
 

▪ KIMIKA FAKULTATEA	1
▪ ERREKTOREORDETZA	7
▪ UE POLITEKNIKOA	3
▪ ARKITEKTURA GET	1
▪ ERIZAINZAKO UE	3
▪ ENPRESA IKASKETEN UE	1

Hala ere, lan-karga dela-eta, ezin daiteke segurtatu langile berri guztiek prestakuntza/informazioa jaso dutenik. Arrazoi beragatik, ezin izan dira datuak SEHTRA programan sartu.

## 8.- Aldian behingo kontrolak. Segurtasun-azterketak

### 8.1. Aldian behingo kontrolak

Suteen aurkako elementuen azterketak hiru hilean behin eta Campuseko ikastegi bakoitzaren seinalizazioa 2008an.



## 8.2. Segurtasun-azterketak

- Bide Segurtasunaren kontrola Ibaetako Campusean, 2009ko abenduan.
- Kimika Fakultateko laborategien asteko azterketetarako programa pilotuaren jarraipena (I. fasea). 2010ean, I. fasea amaitu eta II. faseari ekingo zaio.

## 9.- Arauzko azterketak

Industria-erregelamenduaren mende dauden edo arrisku berezia duten campuseko elementuak aztertzea, Arkitektura eta Obren Zerbitzuaren ikuskaritzapean:

- Galdara-aretoa.
- Transformazio-zentroak.
- Sorgailuak.
- Igogailuak.
- Tximistorratza.
- Etab.

Beste azterketa batzuk:

- Suteen kontrako instalazioen egoeraren azterketa. Sei hilekoa.
- Laborategien asteroko azterketak Kimika Fakultatean (Donostia).
- Segurtasun- eta ebakuazio-seinalizazioaren aldi behingo azterketak. Hiruhilekoak.
- Obren egoeren azterketak hileroko Campusean.
- Agente kimikoak erabiltzen dituzten laborategien aldi behingo azterketak.
- Instalazio jakin batzuen azterketak:
  - Agente Biologikoak eta Genetikoki Aldatutako Organismoak.
  - Instalazio Erradioaktiboak.
  - Erradiazio Elektromagnetikoak sortzen dituzten ekipak.
  - Lan-ekipoak (egokitzapenaren zain).

## 10.- Lan-ingurunearen kontrolak



- Amoniako-neurketa Psikologia Fakultateko estabularioko hiru puntutan.
- Zuzenbide Fakultateko “barrakoietan”:

- Azterketa berezia eraikuntza-egituran amiantorik badagoen edo ez jakiteko.
  - Zuntz-neurketa airean.
- Erizaintzako UE/Medikuntza Ikasgunean, ezin izan da neurtu tela asfaltikoaren estaldurak eragindako lurrun organikoa, eguraldi txarragatik (ezinbestekoa eguzki-erradiazio bizia).

## 11.- Istripuen eta gertakarien analisia

2009an 25 istripu gertatu dira Campusean; horietatik 6 bajarekin.

### ISTRIPUAK BAJAREKIN GIPUZKOA 2009 GUZTIRA: 6 ISTRIPU



Istripu-gertakariak aztertu ondoren, neurri zuzentzaileak eta prebentziokoak hartu ditugu, antolakuntzari nahiz teknika-informazio alorrari dagozkienak. Litekeena da baten bat oraindik SEHTRA programan sartu gabe egotea.

Bestetik, Gipuzkoako Campuseko istripu eta gertakari guztiak jaso/erregistratuko dituen mekanismoa bat ezartzeke dago.

## 12.- Ingurumena

- Ingurumen Kudeaketarako Teknikariaren zereginaren lan osagarriak.
- EKOSCAN hobekuntza-taldeetan parte-hartzea (Errektoreordetza,...).
- Hobekuntza-ekintzak ingurumen-arloan.

## 13. Beste jarduera batzuk

- BATUBIDEn bileretan parte hartzea.
- Ordenagailuek sortutako soinua neurtzea (4).
- Indarreko legedia betetzen den ebaluatzea.
- Mugikortasun iraunkorrari buruzko ARCHIMEDES-CIVITAS Europako ikerketa-proiektuan parte hartzea, Donostian.
- Gipuzkoako Campusak Kalitate, Ingurumen eta Prebentzio arloan duen Jarduketa Plana sortzea eta haren jarraipena egitea.
- Gipuzkoako Campuseko Kudeaketa Taldean parte hartzea.
- Lanpostuen banakako azterketa bereziak (hala eskatzen denean).
- UPV/EHUko Prebentzioaren Kudeaketa Sistemaren talde idazlean parte hartzea, Amaia Masedaren koordinazio pean.
- Egiteko dagoena: atmosfera leherkorrak (ATEX).
- “Arauz kanpoko” instalazio eta prozesu ugariren egoera legeztatzea: Campuseko eraikin guztien aktibitate-baimenak, etab.
- Prebentzioarekin zerikusia duten Campuseko beste lan-arlo batzuetan parte hartzea (Bide Segurtasuna, asteroko bilerak Arkitektura eta Obren Zerbitzuarekin, etab.).
- “Bide Segurtasuna UPV/EHUko Ibaetako unibertsitate campusean” ponentziarekin, DG Tk antolatutako “Hirietako Bide Segurtasunaren 1. Topaketak” batzarrean parte hartzea.
- Etab.

## **BIZKAIKO CAMPUSA**

### **1.- Antolakuntza paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerak**

Bizkaiko Campusean eginiko Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilerak:

2009ko martxoaren 30

2009ko ekainaren 17

2009ko irailaren 24

### **2.- Prebentzioaren planifikazioa**

Prebentzio Jardueraren planifikazioa egin dugu Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzarekin elkarlanean.

Aipatzekoa da arriskuen ebaluazioa egin dela Bizkaiko Campuseko eraikin guztietan, eta dagozkion prebentzio-neurriak hartu direla.

### **3.- Arriskuen ebaluazioa**

2009an, arriskuen ebaluazioaren azterketa egin dugu languneen arabera. Txostena idatzi eta Errektoreordetzara bidali da, Ikastegiek berrius dezaten.

Agente biologikoak eta genetikoki aldatutako organismoak erabiltzen dituzten laborategien ebaluazioa, egokitasun-ziurtagiria lortzeko, dagokion babes-mailarekin.

Bestetik, lanpostuen ebaluazioak ere egin ditugu, eskaera jakin batzuei erantzunez.

Besteak beste:

Neurozientzietako Ofizialak.

Atezaintzako instalazioak.

Administrazioko langileak

Multimedia Teknikariak

### **4.- Prebentzio neurriak hartzea**

Eraikinak ebakutzeko elkartzeko-puntuak zehaztea eta seinalizatzea.

Suteen aurkako babes-sistemak ezartzea eta mantentzea, honako eraikin hauetan:

Esperientzia Ikasgelak

Ikasgelategi I

Ikasgelategi II

Arte Ederretako Fakultatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Enpresa Ikasketen UE (Elkano)

Bilboko Ingeniaritza GET

Ingeniaritza Teknikoko UE (La Casilla)

Liburutegi Nagusia

Miguel Unamuno egoitza  
Irakasleen UE  
Medikuntza Fakultatea  
Meatzeen eta Herri Lanen ITUE  
Nautika eta Itsas Makineriako GET  
Errektoreordetzaren eraikina  
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea  
Sarrikoko txaletak  
Erizaintzako UE  
Ikasgela Nagusia  
Galdara-aretoa

Arrisku biologikoa duten laborategien azterketa-txostenen ondorioz, babes-mailaren seinalizazio berria ezarri dugu laborategietan, bai seinale-faltagatik, bai babes-mailaren aldaketagatik.

Intsektuen kontrako sareak ezarri dira arrisku biologikoa duten laborategi guztietan.

Segurtasun-materialen hornidura, hala nola begi-garbitzekoak, dutzak, etab.

## **5.- Enpresa-jardueren koordinazioa**

Koordinazioa campuseko garbiketa-enpresarekin (UNI2). Bilerak egin ditugu, besteak beste, altueran egin beharreko lanak koordinatzeko.

Bilera egin dugu halaber DELTArekin, Bizkaiko Campuseko segurtasunaz arduratzen den enpresarekin, haren langile bakoitzak Lan Arriskuen Prebentzioaren arloan izan behar duen prestakuntza egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko.

Dokumentazioa trukatu dugu EHUUn lanak egiten dituzten enpresekin, eta gurekin ikerketa-proiektuetan elkarlanean diharduten enpresen dokumentazioa ere jaso dugu; hala nola Petronorretik.

## **6.- Larrialdi-planak**

### **6.1.- Larrialdi-planen txostenak eguneratzea**

2009an, indarrean zeuden Bizkaiko Campuseko larrialdi-plan guztiak, eta ez dugu beraz aldaketarik egin dokumentuetan.

### **6.2.- Ezarpena: Larrialdi Planak / Autobabeserako Gidaliburuetatik eratorritako prestakuntza eta simulakroak**

Prestakuntza eta Kudeaketa Hobekuntzarako Errektoreordetza gutun bat prestatzen ari da Larrialdi Planetako dokumentuetan aipatzen diren batzordeei buruzko

dokumentazioa eskatzeko. Izendapen horiek garrantzitsuak dira plan horiek ezartzeko, eta larrialdietan erantzukizuna beren gain hartuko duten langileen prestakuntza eskatzen du.

Bilera batzuk egin dira izendapenak, prestakuntza eta simulakroak egiteko. 2009an bi ikastegik egin dute simulakroa:

Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
Miguel Unamuno egoitza

Gainera, bilerak egin dira ere Sarrikoko Txaletetan, eta 2010eko lehen hilabeteetan lehen simulakroa egingo du Ekonomia Zientzien Fakultateak.

### 6.3. Suteen aurkako babesa

Ikastegia	Ebakuazioa 2008	Sute-kontrako s. 2008	Seinalizazioa 2008
Medikuntza F.	Eguneratua	Eguneratua	Eguneratua
Erizaintzako UE	Eguneratua	Eguneratua	
Zientzia eta Tek. F.	Eguneratua	Eguneratua	Eguneratua
Arte Ederretako F.	Eguneratua	Eguneratua	
Errektoreordetza	Eguneratua	Eguneratua	
Ikasgela Nagusia	Eguneratua	Eguneratua	Eguneratua
Liburutegia	Eguneratua	Eguneratua	
Giz. eta Kom. Z. F.	Eguneratua	Eguneratua	
Ikasgelategia I	Eguneratua	Eguneratua	
Ikasgelategia II	Eguneratua	Eguneratua	
Galdara-gela	Eguneratua	Eguneratua	
Esperientzia Ikasgelak	Eguneratua	Eguneratua	
Elkano	Eguneratua	Eguneratua	
Bilboko ESI	Eguneratua	Eguneratua	
ITUE	Eguneratua	Eguneratua	
SARRIKO	Eguneratua	Eguneratua	
Txaletak	Eguneratua	Eguneratua	
Irakasleen UE	Eguneratua	Eguneratua	
Nautika GET	Eguneratua	Eguneratua	
Meatzeen ITUE	Eguneratua	Eguneratua	

## 7.- Prestakuntza

Arrisku biologikoari buruzko ikastaroa.

Larrialdi Planaren Ezarpenerako prestakuntza eskaini dugu Zientzia eta Teknologia Fakultatean.

## 8.- Aldian behingo kontrolak. Segurtasun-azterketak

### 8.1. Aldian behingo kontrolak

Bi aldiz aztertu dira Suteen Aurkako Babes Sistemako elementuak eta campuseko ikastegi bakoitzeko seinalizazioa. Larrialdi-plan berriek ezartzen dituzten ebakuazio-ibilbide berriak berraztertu eta egokitzea.

Gainera, Leioako campuseko sute-ahoen sare osoa aztertu dugu.

### 8.2. Segurtasun-azterketak

ATEX maparen lehen zirriborroa, 681/2003 EDren arabera.

## 9.- Arauzko azterketak

Industria-erregelamenduaren mende dauden campuseko elementuak aztertzea, Arkitektura eta Obren Zerbitzuaren ikuskaritzapean.

## 10.- Lan-ingurunearen neurketak

Planifikatuta daude 2010ean egin beharreko neurketak.

## AGENTE BIOLOGIKOEKIN LAN EGITEN DUTEN LABORATEGIAK - ZIURTAGIRIAK

Agente Biologikoak eta Genetikoki Aldatutako Organismoak erabiltzen dituzten laborategien lehen azterketaren ondoren, bigarren azterketa bat egin da azaroan eta abenduan, laborategiei behin-behineko Ziurtagiriak emateko.

<b>Ikastegiak</b>	<b>Kodeak</b>	<b>Ziurtagiri-mota</b>
<b>Medikuntza F.</b>	<b>EHU-BM-001 - EHU-BM-029</b>	<b>BEHIN-BEHINEKOA</b>
<b>Erizaintza UE</b>	<b>EHU-BE-001</b>	<b>BEHIN-BEHINEKOA</b>
<b>Zientzia eta Teknologia Fakultatea</b>	<b>EHU-BZ-001 - EHU-BZ-024</b>	<b>BEHIN-BEHINEKOA</b>

## 11.- Istripuen eta gertakarien analisisa

Ikus Osasun Arloko datuak.

## **12. Beste jarduera batzuk**

Bioetikako Batzordeetan parte hartzea.

Larrialdi Planetarako dokumentazioa prestatzea eta IDOM enpresari helaraztea.

Larrialdi Planetarako dokumentazioa prestatzea eta ONDOAN enpresari helaraztea.

Medikuntza Fakultateko hobekuntza-taldeetan parte hartzea.

Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoko hobekuntza-taldeetan parte hartzea.



## INGURUMEN KUDEAKETA

UPV/EHU Un Ingurumen Kudeaketako Teknikariak egin duen lana, baita kudeaketa horretatik eratorzen diren ondorioak ere, 2009ko txosten honetan aurkezten dira, era honetan:

2009ko jarduerak

- Hondakin toxikoen kudeaketa.
- Hondakin sanitarioen kudeaketa.
- Hondakin erradioaktiboen kudeaketa.
- Ingurumen-ziurtagiria, EKOSCAN.
- Ingurumen-aholkularitza aditua IHOBELINE bidez.
- Proposamena Nazioarteko Bikaintasun Campuserako.
- Hondakinen kudeaketa martxan jartzea Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuen Zentroan, Gasteizen.

UPV/EHUren INGURUMEN EGOERA 2009an: ONDORIOAK

- Egoera
- Etorkizuneko proposamenak

### 2009ko JARDUERAK

HONDAKIN TOXIKO ETA ARRISKUTSUEN KUDEAKETA

EKONOR enpresarekin eginiko kontratua betez, hondakin toxiko eta arriskutsuak bildu dira hiru hilean behin era horretako hondakinak sortzen dituzten Ikastegi guztietan. Hondakinen pilaketak hala eskatu duenean, Ikastegiek eskatuta egin dira bilketak. Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatearen kasua da: obrak egiten ari direnez hondakinen biltegian, behin-behineko areto batean pilatu behar ditu hondakinak, eta bilketa hileroko egiten da horrenbestez, segurtasunagatik.

**I Koadroan** ikastegi bakoitzean sortzen diren hondakinak ikus daitezke; **I Grafikoan**, hondakinen ekoizpenak UPV/EHU Un izan duen bilakaera.

## HONDAKIN SANITARIOEN KUDEAKETA


ELIRECON enpresarekin eginiko kontratuaren bidez, bilketak egin dira hiru hilean behin era honetako hondakinak sortzen dituzten Ikastegi guztietan. Hondakin-pilaketak hala eskatu duenean, Ikastegiek eskatuta egin dira bilketak. Bestetik, kontuan izanik hondakin hauen biltegiak tenperatura jakin bat eskatzen duela (4°C-tik beherakoa), eta Ikastegi guztiak horretarako prestatuta ez daudela, bilketa puntualak ere egin izan dira Ikastegiek hala eskatu dutenean.

**II Koadroak** ikastegi bakoitzak sortzen dituen hondakin-kantitateak adierazten ditu.

	Zientziak Leioa	Ingeniaritza Bilbo	ITUE Bilbo	Farmazia Gasteiz	Kimika F. Donostia	Eibarko ITUE	Korta Eraikina	Irakasleen UE	Psikologia	Meatzeen ITUE	Arte Ederak Leioa	Medikuntza Leioa	Filologia eta Geografia	Neurotek	Biofisika	Ingeniaritza Gasteiz	Mantenimendua	Zitek	Eskola Politeknikoa Donostia	Guztira kg
LABORATEGIKO ERREAKTIBO IDENTIFIKATUAK	1.414	414		372	169		787	60	30		36	153	80	18	6	122		26	273	3.960
DISOLBATZAILE HALOGENATUAK	3.271	404	267	1.790	1.697		4.362								67	56			4	11.918
DISOLBATZAILE EZ HALOGENATUAK	487			222	264		289				21	313		10	50				110	1.766
DISOLUZIOAK METAL ASTUNEKIN	1302	109		363	227											44				2.045
DISOLUZIO INORGANIKO ALKALINOAK	379	137		271	211		81						12						37	1.128
DISOLUZIO INORGANIKO AZIDOAK	1.854	222		978	469								18		220				77	3.838
BESTE AKUOSO BATZUK BESTE LIKIDO ORGANIKO BATZUK			241	97											19					357
HONDAKIN ZIANURATU LIKIDOAK																				0
LANPARA FLUORESZENTEAK																			55	55
ERREBELATZEKO LIKIDOAK											41	198		5						244
ELEKTROHIGADURAKO BUZTINAK																				0
EMULTSIOAK ETA TALADRINAK																				0
SOLIDO ORGANIKO POLIMERIZATUAK							127													127
SOLIDO INORGANIKOAK	102				40		9													151
BESTE SOLIDO ORGANIKO BATZUK	326				65		371					22								784
MERKURIO METALIKOA	1			1	3		1													6
OLIOAK	5			24	9														20	62
ONTZI HUTSAK >=50 L	46						10									4				56
ONTZI HUTSAK <=50 L	157	87		31			32		15											322
Pb BATERIAK																				0
PCB LIKIDOAK																				0
PASTAK ETA PINTURAK						350														350
GANTZAK																				0
FINKATZAILEAK																				0
AMIANTOA																	160			160
DISOLUZIO AZIDO ETA BASIKO SUKOIAK																				0
ETIDIO BROMUROAREKIN KUTSATUTAKO MATERIALAK	99	19		73								35		17	29					272
OSAGAI ELEKTRONIKOAK																			46	46
AEROSOL TEKNIKOA									5											5
BEIRAZKO ONTZIAK	1.737	172		1.331			12					52	16	3	230			16	160	3.729
MATERIAL KUTSATUA							7					22								29
OLIO IRAGAZKIAK																				0
<b>GUZTIRA IKASTEGIKA</b>	<b>11.180</b>	<b>1564</b>	<b>508</b>	<b>5553</b>	<b>3154</b>	<b>350</b>	<b>6088</b>	<b>60</b>	<b>50</b>	<b>0</b>	<b>98</b>	<b>795</b>	<b>126</b>	<b>53</b>	<b>621</b>	<b>226</b>	<b>160</b>		<b>728</b>	<b>31.410</b>

## I GRAFIKOA

URTEKO BILAKAERA



## II KOADROA

IKASTEGIA	HONDAKIN EBAKITZAILLE ETA ZIZTATZAILLEAK	HONDAKIN SANITARIOAK	BAZTERTUTAKO BOTIKAK	FORMOLEAN GORDETAKO HONDAKIN ANATOMIKOAK	GUZTIRA Kg
Psikologia Fakultatea. Donostia	218	58			276
BIZKAIKO CAMPUSA	16	188			204
Erizaintzako Unibertsitate Eskola. Donostia	25	10	5	14	54
Erizaintzako Unibertsitate Eskola. Bizkaia	26				26
Farmazia Fakultatea		2187	142		2329
Donostiako Eremu Sanitarioa	7				7
Gasteizko Eremu Sanitarioa		5			5
Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzien Fakultatea		3			3
Neuroteck lab.		123			123
KORTA eraikina	7				7
NEUROGENOMIKS		85			85
<b>GUZTIRA Kg.</b>	299	2659	147	14	<b>3.119</b>

## INGURUMEN ZIURTAGIRIAK

Gaur egun EKOSCAN ingurumen-ziurtagiria dugu UPV/EHUko ikastegietan, etorkizunean ISO 14001 ziurtagiria lortzea baztertzen ez badugu ere, UPV/EHUko ikastegien ingurumen-orientazio egokia bermatzeko.

Ingurumen Kudeaketako Teknikariak ikastegietako hobekuntza-taldeetan parte hartzen du, eta talde horiek hobekuntza-jarduerak erabaki eta jarduera horiek zer mailataraino betetzen diren aztertzen dute. Jarduera hauen bidez ikuskaritzak gainditzen dira, eta horri esker lortzen dute ikastegiek EKOSCAN Ziurtagiria.

2009an, honako ikuskaritza hauek gainditu dira UPV/EHUko ikastegietan:

IKASTEGIA	1. ikuskaritza	2. ikuskaritza	3. ikuskaritza	4. ikuskaritza plus
Psikologia Fakultatea. Gipuzkoa	urtarrilak 22			
Enpresa Ikasketan UE. Gipuzkoa				irailak 21
Erizaintzako UE. Gipuzkoa	urtarrilak 16			
Esk. politeknikoa. Gipuzkoa			otsailak 23	
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza		apirilak 11		
Ingeniaritza UE. Gasteiz				abenduak 28

## IHOBEline INGURUMEN AHOLKULARITZA ADITUA

IHOBEline zerbitzuaren eskaintzari erantzunez, Ingurumen Aholkularitza Adituko zerbitzu bat eskatu genuen bere garaian, eta zerbitzu hori CIMAS Innovación y Medioambiente enpresak eskaintzen digu, 2009ko urriaren 8az geroztik.

UPV/EHUrako Ingurumen Arloko Ekintza Plan bat diseinatzea eskatu zaio aholkularitza-enpresa horri, honako helburu hauekin:

- UPV/EHU garapen iraunkorrean oinarritutako unibertsitatea izatea.
- UPV/EHU bere burua kudeatzeko gai izatea ingurumenaren ikuspegitik.

Aholkularitza-enpresak ondorio batzuk aurkeztu ditu, hainbat arlotan:

- Energia aurreztea
- Hondakinen kudeaketa
- Ura aurreztea
- Elikadura-zerbitzuak: kafetegiak eta jangelak
- Garraioa
- Eraikuntza
- Biodibertsitatea

## NAZIOARTEKO BIKAINTRASUNAREN CAMPUSERAKO PROPOSAMENA

Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremua Nazioarteko Bikaintasunaren Campus bihurtzeko lehian, proposamen bat landu dugu ingurumen-arloan, helburu eta xede batzuekin, eta helburu horiek betetzen diren jakiteko balioko duten adierazleekin.

2009ko uztailan landutako zirriborroak 9 ingurumen-helburu ezartzen ditu, 18 xedetan artikulatuak, eta beste horrenbeste adierazle, xede horiek zer mailataraino betetzen diren egiaztatzeko.

## HONDAKINEN KUDEAKETA MARTXAN JARTZEA GASTEIZKO IKERKETA ETA IKASKETA AURRERATUEN ZENTROAN

Gasteizko campuseko Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuen Zentro berriak, 2009ko azaroaren 26an inauguratua, sektoreko teknologia aurreratuenez hornitutako laborategiak ditu.

Erakin berrian egingo diren ikerketa-jarduerek hondakin toxikoak, arriskutsuak eta sanitarioak sortuko dituztela kontuan izanik, hainbat neurri hartu dira hondakinen kudeaketa eraginkorra egiteko:

- Txosten bat idaztea Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuen Zentroko laborategietako arrasken depositu biltzaileen funtzionamenduari buruz (argitaratze-data: 2009ko azaroaren 26).
- Protokolo bat sortzea hondakin toxikoak, arriskutsuak eta biosanitarioak kudeatzeko, ikastegi barneko kudeaketan parte hartzen duen eragile bakoitzak kontuan hartu beharreko jarraibideekin (argitaratze-data: 2009ko azaroa).
- Ziurtagiri bat lortzea EKONOR eta ELIRECON enpresen zerbitzuak Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuen Zentro berrira zabaltzeko (2009-11-09).
- Lehen urratsak egitea hondakin sanitarioak gordeko dituen hozkailu bat erosteko. Gainera, babes-kubetak erostea ere hondakin toxiko, arriskutsu eta errektiboen biltegietarako. Enpresa hauen aurrekontuak aztertu ditugu:
  - Viñaspre
  - Otlán
  - Fisakal SL
  - Empteezy Iberica SL

## **UPV/EHUko 2009ko INGURUMEN EGOERARI BURUZKO ONDORIOAK**

### **- EGOERA**

UPV/EHUko ingurumen-egoera ingurumen-kudeaketa integralaren (zeharkako kudeaketa) hastapenetan dagoela esan daiteke, eta iraunkortasuna da helburu nagusia: ingurumen-iraunkortasuna lehenik, eta gizarte eta ekonomi iraunkortasuna, ondoren. Gaur egungo egoera txarra ez bada erabiltzailearen asebetetasunaren ikuspegitik, ingurumen-gaietan oraindik dugun kontzientziario txikiagatik da, eta arlo horretan dugu lanik handiena etorkizunari begira. Gaur egun, ingurumen-jardueren bultzada araudiak betebeharrari zor zaio neurri handi batean, edo arazo zehatzen ebazpenari (hala nola hondakinen kudeaketa).

### **- ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENA**

Etorkizunari begira, erabiltzaileen parte-hartzetik sortutako helburuak planteatu beharko genituzke, eta helburu horiek koordinatu gizartean indarrean dauden jarraibide nagusiekin. Ingurumen-kudeaketak erabiltzaileen erantzukizuna ere eskatzen du erabakitako neurriak betetzeko.

Praktikan, ezinbestekoa litzateke UPV/EHUko hainbat mailatan iraunkortasuna xede hartuta garatzen diren ekimenak bateratzea, indarrean dauden zereginak garapen iraunkorraren xedeetara egokitzen saiatzea, eta ez soilik zeregin berriak landu eta garatzea.



11.

**ERANSKINAK**

## **2003ko APIRILAREN 7ko EBAZPENA, EHUko ERREKTOREARENA, EHUko PREBENTZIO ZERBITZUA ERATU, ANTOLATU ETA ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA ZEHAZTEKO**

Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, indarrean jartzeak aldaketak eragin ditu administrazio publikoetan, lanpostuko arriskuen prebentzioaren bidez langileen osasuna babesteko politiken arloan, hain zuzen ere; izan ere, lege hori laneko araudi ez ezik, funtzionario publikoen estatutuetakoko oinarritzko araudi ere bada.

Azaroaren 8ko 31/1995 Legea garatzeko, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzekoa, argitaratu zen, eta errege dekretu horretako 14. artikuluan zehaztuta dago 500 langiletik gora dituzten enpresek beren prebentzio zerbitzua eratu behar dutela, eta eratu ez ezik, prebentzioaren arloko jarduerak betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialak ere izan beharko dituztela.

Hori guztia kontuan hartuta, langileen ordezkarietara kontsulta egin ondoren EHUko Campus Arteko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzordearen bidez, 2003ko martxoaren 7an CCOO, CSIF, ELA, LAB, STEE-EILAS eta UGT sindikatuetakoko prebentzioko ordezkarietara adostu ondoren eta eman dizkidaten eskumenen babesean,

### **EBATZI DUT**

Lehenengoa.- Prebentzio Zerbitzua eratzea.

EHUren Prebentzio Zerbitzua osatuta dago eta gerenteari atxikita egongo da.

Bigarrena.- Definizioa eta helburua.

EHUko Prebentzio Zerbitzua prebentzioaren arloko zeregina betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialez osatuta dago, horien bidez unibertsitateko kideei babesa emateko segurtasun eta osasunaren arloan. Zeregin horiei jarraituz, aholku eta laguntza emango diete administrazioari, langileei, horien ordezkarietara eta campusetako eta campus arteko laneko segurtasun eta osasun batzordeei.

Hirugarrena.- Jarduera-eremua.

Prebentzio Zerbitzuak EHUko langile guztietara eragingo die.

EHUko errektoreak eta gerenteak zehaztu eta zainduko dituzte laneko segurtasun eta osasunaren arloko helburuak, unean uneko indarreko araudiari jarraituz.

Laugarrena.- Baliabide materialak eta aurrekontua.

Aurrekontu-sail berariazkoak zehaztuko dira programa bakoitzerako, EHUn prebentzio jarduerak abian jarri, egoki bete eta neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko, eta

prebentzio jarduerak betetzeko beharrezko instalazio eta baliabide materialak eskuratzeko, beti ere, aurrekontuei buruzko araudiari jarraituz.

Bosgarrena.- Antolakuntza.

1.- Prebentzio Zerbitzua bi arlotan banatuta egongo da: Osasun Arloa eta Arlo Teknikoa. Zerbitzuan, beraz, alor desberdinetakoak arituko dira, baina elkarlanean arituko beharko dira urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzekoak, 15. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

1.1. Osasun arlokoen zereginak laneko osasun, ergonomia eta psikosoziologia aplikatuarekin lotutako espezialitateei dagozkienak izango dira. Zeregin horiek betetzeko, eta indarreko araudiari jarraiki, Oinarrizko Osasun Unitateak (OOU) izango ditu, hau da: EHUk gaur egun dituen hiru campusetako bakoitzak Oinarrizko Osasun Unitate bat izango du.

Gaur egun EHUko Osasun Zerbitzuan diharduten mediku eta erizainak Osasun Arloan sartuko dira. Arlo horrek arduradun bat izango du koordinazio lana egiteko.

1.2. Arlo Teknikoan unibertsitateko goi mailako lau titulatu arituko dira: Araba eta Gipuzkoako campusetan titulatu bana eta Bizkaikoan bi. Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuko VI. kapituluan jasotakoarekin bat, prestakuntza egokia izan beharko dute goi mailako eginkizunak betetzeko prebentzioko berezitasun eta diziplinaren arloan, laneko segurtasun eta industri higieneari dagokionean, hain zuzen.

EHUko gaur egungo prebentzioko teknikariak Arlo Teknikoan sartuko dira. Arlo horrek arduradun bat izango du koordinazio lana egiteko.

2.- Prebentzio Zerbitzuak zerbitzuburu bat izango du koordinazio eta gestio lanak egiteko.

3.- Arkitektura eta Obra Zerbitzua elkarlanean arituko da Prebentzio Zerbitzuarekin, batez ere unibertsitateko azpiegituretan, sarreretan, eraikinen edo instalazioen segurtasunean, ebakuaziorako sistemetan edo antzekoetan neurri zuzentzaileak edo hobekuntzarako bitartekoak ezartzeko edo horien inguruko proposamenak egiteko.

4.- Kontratazio eta Erosketa Zerbitzua elkarlanean arituko da Prebentzio Zerbitzuarekin, indarreko araudia betetzeko beharrezko diren ekipamenduak lortzeko, hain zuzen.

5.- Prestakuntzako arduradunak ere elkarlanean arituko dira Prebentzio Zerbitzukoekin laneko arriskuen prebentzioaren arloan beharrezko diren prestakuntza planak prestatu eta antolatzeko.

6.- Gerenteak koordinazio lanak eginda, EHUko beste edozein zerbitzu edo langile (batez ere, irakasle eta ikerlariak) aritu ahal izango da Prebentzio Zerbitzuarekin lankidetzan aholku emateko eta prestakuntza planak osatu, antolatu eta emateko. Era

berean, Prebentzio Zerbitzuarekin elkarlanean aritu ahal izango dira arloan ospea duten

beste profesional edo erakunde batzuk ere, aholku edo/eta prestakuntza emateko.

Seigarrena.- Osasun Arloaren eginkizunak.

1.- Osasun Arloaren eginkizunak dira osasuna zaintzeko beharrezkoak diren zereginak betetzea, bai eta ergonomia eta psikosozioologia aplikatuarekin lotutakoak ere. EHUko Prebentzio Zerbitzuak, osasuna zaintzeari dagokionean, honakoak izango ditu oinarri: prebentzio zerbitzuen osasun jardueri buruzko araudia (uztailaren 27ko 306/1999 Dekretua; 1999ko abuztuaren 20ko EHAA, 159. zk.) eta ergonomia eta psikosozioologia aplikatuari buruzkoa. Arlo honen eginkizunak, beraz, honakoak izango dira:

- a) Osasuna zaintzea eta sustatzea: osasun azterketak egitea; osasuna zaintzeko hartutako neurrien bidez eta arriskuen ebaluazioaren ondorioz lortutako emaitzak aztertzea; haurdun edo erditu berri dauden emakumeek eta egoera jakin batzuetan aparteko sentikortasuna duten langileek dituzten arriskuen azterketak egitea; lehen laguntzak antolatzea eta ematea; larrialdiak antolatzea eta egoera horietan laguntza ematea.
- b) EHUko langileen osasunarekin zerikusia duten faktoreen ondorioz eragindako lan husteak gestionatzea eta kontrolatzea, eta hori horrela egingo da helburu bakarrarekin: gaixotasuna edo laneko huts egitea eragin duen faktorearen eta languneak osasunerako izan dezakeen arriskuaren artean izan daitekeen lotura aztertzea.
- c) Zaintza epidemiologikoa.
- d) Giza harremanak, estresa eta depresioa.
- e) Laneko baldintzak antolatzea, lanpostuen diseinua egitea, esfortzu-mugak eta laneko ingurugiroa.
- f) Lortutako emaitzak aztertzea.
- g) Agintzen dizkieten antzeko beste eginkizun batzuk, baita indarreko araudian zehaztuta daudenak ere.

Behar bezalako akreditazioa eta baimena duten zentro espezializatuekin azpikontratatu daitezke zerbitzuko oinarritzko osasun jardueraz gaindiko zenbait jardura; esaterako, diagnostikorako osagarritzko teknikak.

Zazpigarrena.- Arlo Teknikoaren eginkizunak.

1.- Arlo Teknikoari honako hauek dagozkio:

- a) EHUko ikastegietako arriskuen ebaluazioa egitea.
- b) Osasun arloarekin zerikusirik ez duten prebentzio jarduerak planifikatzeaz gainera, horretarako beharrezko diren programa eta planak egitea.
- c) Istripuak eta ezbeharrak ikertzea, arrazoiak zeintzuk izan diren jakiteko eta, aurrerantzean, horiek saihesteko.
- d) Ikuskaritza-lana egitea.

- e) Industriako higiene eta segurtasun arloko estatistikak egitea.
- f) Jarduera zuzentzaileak proposatzea
- g) Larrialdietarako planak diseinatzea eta planak egiteko lanak koordinatzea.
- h) Arlo honetako prestakuntzarako proposamenak egitea.
- i) Ikuskaritza teknikoak eta gestiokoak egingo ditu, adibidez: prozeduren kontrola, praktika operatiboak, segurtasuneko arauak, obra berriak.
- j) Indarreko araudiari jarraituz izan ditzakeen beste batzuk.

2.- Arlo teknikoak laneko segurtasunaren arloan prebentzioarekin eta industria higienezarekin zerikusia duten eginkizunak izango ditu, eta zeregin batzuetarako behar bezala akreditatutako edo baimendutako zentro espezializatuak azpikontratatu ahal izango ditu.

Zortzigarrena.- Prebentzio Zerbitzuko buruaren eginkizunak.

1.- Prebentzio Zerbitzuko buruari honakoak dagozkie:

- a) Prebentzio Zerbitzuko arlo biak koordinatzea eta zuzentzea.
- b) EHUn osasuna sustatzeko eta laneko arriskuak prebenitzeko beharrezko diren jarduerak bultzatzea.
- c) Langileentzako informazio programak eta prestakuntza planak egitea.
- d) Arriskuen ebaluaziorako prozesua zuzentzea.
- e) Neurri zuzentzaileak planifikatzea eta ezartzea, batez ere, EHUKo beste zerbitzu batzuek ere parte hartu behar dutenean.
- f) Prebentzio Zerbitzuan sortuko diren erregistro guztien gestioaren eta zaintzaren ardura izatea.
- g) Laneko arriskuen prebentzioarekin lotuta beharrezko diren jarduerak egitea, gerenteak gainbegiratuta.
- h) Prebentzio Zerbitzuaren urteko txostena egitea.
- i) Prebentzioko neurriak ezartzeko lehentasunak zehaztea eta neurri horien eraginkortasuna kontrolatzea.
- j) Prebentziorako eskuliburuak eta prozedurak argitaratzeko eta banatzeko lanak zuzentzea.
- k) Prebentzio Zerbitzuaren web gunea zuzentzea eta gainbegiratzea.

Bederatzigarrena.- EHUKo ikastegien parte-hartzea.

1. EHUKo ikastegietako dekanok eta zuzendariak, administratzaileekin batera, honako zereginak dituzte:

- a) Ikastegian batzorde bat eratzea Prebentzio Zerbitzuarekin lotuta Gerentziak zehaztutako programa eta sistemak ezartzeko, horien bidez laneko segurtasun eta osasunari buruzko xedapenak eta araudia betetzeko.
- b) Ikastegiko langileen kexu, eskaera eta iradokizunak konpontzea. Zailtasun teknikoak edo bestelakoak direla-eta hori posible ez bada, Prebentzio Zerbitzuko buruari emango diote guztiaren berri.

2. Ikastegian istripu edo ezbeharren bat dagoenean, administratzaileak berehala jakinaraziko dio Prebentzio Zerbitzuko buruari, eta horrek, era berean, Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordeari emango dio horren guztiaren berri.

Hamargarrena.- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko kultura zabaltzea.

Kontuan izanda zein sakabanatuta dauden eta zein sare nahasia eratzen duten EHUko ikastegiekin, jarduerak antolatuko dira ikastegietako langile batzuek prebentzioaren arloko oinarritzako prestakuntza izan dezaten, eta prestakuntza hori oinarri hartuta EHUko gainontzeko langileen artean laneko arriskuen prebentziorako kultura hedatu dezaten.

Hamaikagarrena.- Campuseko errektoreordearen, Ikerketa errektoreordearen, Kalitate katedrako titularraren, Pertsonaleko gerenteordearen eta campusetako gerenteordeen jarduerak. Aipatutako errektoreordeek, gerentearekin batera, eta kontuan izanda bakoitzaren eskumenak, laneko segurtasun eta osasunaren arloko eta ingurugiroaren arloko baldintzak hobetzeko beharrezko diren jarduerak zehaztuko dituzte.

Jarduera horien gestioa campuseko gerenteordearen edo Pertsonaleko gerenteordearen ardura izango da, kontuan izanda bakoitzak dituen eskumenak. Lan hori Prebentzio Zerbitzuko buruarekin elkarlanean egingo dute.

Campuseko gerenteordearen kasuan, aipatutako gestio lana Prebentzio Zerbitzuko buruarekin elkarlanean egiteaz gain, osasun arloak eta arlo teknikoak campusean dituen kideen laguntza ere izango du.

Kalitate katedrako titularrak eta campusetako Kalitate Programak bultzatzeko zuzendariek, beren jardueren esparruan, lehentasuna emango diete EHUko laneko segurtasun eta osasuna eta ingurugiroa hobetzeko jardueri.

Alor honetako erabakiak hartzeko eta gestioa egiteko, aipatutako agintariak beren eskumenen arloei dagozkien txostenak eska diezazkiokete Prebentzio Zerbitzuko buruari.

Hamabigarrena.- Campuseko eta campus arteko laneko segurtasun eta osasunerako batzordeak.

Prebentzio Zerbitzuko jarduerak campuseko eta campus arteko laneko segurtasun eta osasunerako batzordeekin elkarlanean egin beharko dira. Prebentzio Zerbitzuari erabaki honen bidez eman zaizkion eskumenak ez dira izango aipatutako batzordeek dituzten eskumenen kalterako, eta, edozelan ere, indarreko araudian, Lan Baldintzak Arautzeko Akordioan, Hitzarmen Kolektiboan eta arloko gainerako araudian zehaztutakoa bete

beharko dute.

Hamahirugarrena.- Indarrean sartzea.

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Manuel Montero

Errektorea